



Mintzola Fundazioaren eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2021) euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko Gradu Amaierako Lanen Saria (GRAL)

DEIALDIAREN XEDEA

Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du, beste helburu batzuen artean, hala Mintzola Fundazioak nola Mikel Laboa Katedrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU/UPV) arteko lankidetzaz-egitearen testuinguruan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberriaren urratsak garrantzizkoak dira; hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta euskarazko **antzerkigintza, kantagintza, bertsolaritza, kontalaritza, bikoizketa edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikergai gisa aukeratu izana baloratzea** da deialdi honen helburua. Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu, deialdi honetan Gradu Amaierako Lanen kalitatea ebaluatu eta sarituko da.

PROZEDURA

- Euskarazko antzerkigintza, kantagintza, bertsolaritza, kontalaritza, bikoizketa edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikergai duen Gradu Amaierako Lan (GRAL) bat edo Goi Mailako Antzerki zein Musika (Musikene, Dantzerti eta pareko) Ikasketa bukaerako lan bat da sarituko dena.
- EAE, Nafarroa Garaia edo Pirinio Atlantikoko Departamenduko Goi Mailako Ikastegi zein Unibertsitateetako gradu ofizialetako ikasleek (edo ikasle ohiek) aurkeztu dezakete GRALa edo ikasketa bukaerako lana.

- Deialdira aurkeztu daitezkeen lanak 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan defendatu-koak dira.
- Aditu edota doktorez osaturiko hautaketa-batzordeak baloratuko ditu lanak. Baremoak zehaztu ondoren, batzordeak puntu gehien duenetik gutxienekora doan zerrenda egingo du. Horietan puntu gehien lortu dituenak irabaziko du saria. Sariari uko egiterik edo bestelako arazorik balego, saria merezi duten izenen zerrendan hurrengoa denak jasoko luke saria.
- 2021ean 500 euroko sari bat esleituko da.
- Saria eman gabe gera daiteke, lanik ez delako aurkeztu edota aurkeztu direnek saririk merezi ez dutela erabakitzen bada.
- Irabazlea, beranduenez, azaroaren 18an jakinaraziko da, eta sari-banaketa azaroaren 24an egingo da Mintzola Mintegiaren baitan, Amasa-Villabonan.
- Mikel Laboa Katedrak zein Mintzolak deialdira aurkeztutako lanak argitaratzeko esku-bidea edukiko dute, idazlanaren pasarte bat izan edo idazlan osoa izan.
- Deialdira aurkeztutako lanak Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatuko dira, eta argitaratu bitartean lan bakoitzaren egilearen baimena beharko da kontsultatu ahal izateko.
- Deialdira GRAL edo Goi Mailako ikasketa bukaerako lan bat aurkeztea aski da, lanaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatzeko.

ESKAERAK

- Lanak (PDFan) eta eskaerak ([eskaera-inprimakia](#)) **Mintzola Fundazioaren Zuzendaritzari** (administrazioa@mintzola.eus) eta **Mikel Laboa Katedraren Zuzendariari** (jm.hernandez@ehu.eus) bidaliko zaizkie.
- Lanak ([eskaera-inprimakiarekin](#) batera) aurkezteko epea: **2021eko urriaren 20ra arte**.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Lanak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:
 - GRALaren kalitatea: ikerketa-gaia eta helburuak ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatuta egotea. Lana argi eta ondo idatzita eta egituratuta egotea.
 - GRALaren garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan ildoak irudikatzea.
 - Euskarazko lanak lehenetsiko dira.

INFORMAZIOA

- Mintzola Fundazioaren atarian (www.mintzola.eus), argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa eta deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabehereri buruzko galderak honako helbide elektroniko honetara bidaliko dira: administrazioa@mintzola.eus edota jm.hernandez@ehu.eus era.